

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresaren arrakasta bezeroen asebetetzean eta leialtasunean oinarritzen da. Horretarako, bezero berriak erakartzeko eta lehendik ditugunak mantentzeko estrategia sendo bat diseinatu dugu. Ondoren, gure estrategiaren xehetasunak azalduko ditugu.

BEZEROAK ERAKARTZEKO

1. Publizitatea eta Informazioa Zabaldu:

Iragarki kanalak:

- Telebista eta irratia: Gailuaren erabileraren eta onuren inguruko iragarki argigarriak emitituko ditugu. Mezua argia eta erakargarria izango da, entzuleei gure produktua hurbiltzeko.
- Sare sozialak: Instagram, Facebook, eta beste sare sozial batzuetan iragarki sortaileak sortuko ditugu. Bisualki erakargarriak erabiliko ditugu, arreta bereganatzeko.

Aurkezpenak tokian tokiko lekuetan:

- Eskolak: Gazteak eta haien familiak informatzeko, tailer praktikoak egingo ditugu.
- Ospitaleak: Osasun-profesionalek gailua erraz ulertu eta gomendatu ahal izateko, demostratzeko saioak egingo ditugu.
- Azokak: Gailua zuzenean aurkeztu eta jendearekin harremanetan jartzeko, azoketan stand erakargarriak prestatuko ditugu.

2. Erabiltzaileen Gomendioak:

- Gailua erabiltzen duten bezeroek deskontuak jasoko dituzte lagunei gomendatzen badiete eta hauek gailua erosten badute.
- Gomendioaren bidez lortutako deskontuak erabiltzailearen hurrengo erosketa edo harpidetza batean aplikatuko dira.
- Gomendio programaren promozioa egingo dugu sare sozialetan eta gure webgunean.

BEZEROAK MANTENTZEJO ETA HAZTEKO

1. Laguntza Eskaintzea:

Zalantzak argitzeko kanalak:

- Telefono bidezko arreta: Arreta profesional eskainiko dugu erabiltzaileek dituzten edozein galderari edo arazori erantzuteko.
- Aurrez aurreko laguntza: Salmenta-puntuetan edo hitzordu bidez, erabiltzaileei behar duten laguntza eskaintzeko prest egongo gara.

Heziketa-materiala:

- Ikasteko bideo errazak: Gailua erabiltzeko bideo gida sortuko ditugu, bezeroek lehenengo unetik erabiltzen ikas dezaten.
- Liburuxka informatiboa: Argibidea eta pausoz pauso gailuaren funtzionalitateak azaltzen dituen liburuxka bat emango dugu.

2. Osasunarekin Lotura Automatikoa:

Larrialdietarako sistema:

- Gailuak Osakidetzarekin lotura zuzena izatea bermatuko dugu, egoera larriren bat detektatzen bada.
- Gailuak erabiltzaileari zuzenean medikuarekin hitzordu bat erreserbatzeko aukera emango dio, prozesua sinplifikatuz.

Erabiltzailearen segurtasuna:

- Gailua segurtasunaren sinonimo bihurtzea da gure helburua, bezeroen konfiantza handituz eta erabiltzaile berriak erakarriz.

Honela, bezeroei laguntza emanez, haien konfiantza irabaziko dugu eta segurtasuna andituo dugu. Gainera, zerbitzu on batekin, bezeroek gure gailua erabiltzen jarraituko dute eta beste batzuei gomendatuko diete.